

pertsonaia
kirmen uribe

gaiak
kuadrilategi
kaixomaitia.com
kutxitril ateneoa

arte txokoa
kahina dantzaria
txiki tostado rapsoda

GEU

2,40 €

2007ko apirila

172



pou anaiak



CEGASA

Energiaren indar bizia

BELAUNALDI BERRI BATENTZAKO PILA BERRIAK

Ekipo elektroniko berriek energia berria behar dute eskaintzen duten korrante intentsitate altuko premiei erantzuna emango diena.

*Cegasa-k erronka berri honi emandako erantzuna **CEGASA EVOLUTION** da, goragoko potentzia garatzen duen prestazio askotako pila alkalinoen belaunaldi berria, azken belaunaldiko aparatuentzako energia iturri egokiena.*



CEGASA INTERNACIONAL, S.A. Artapadura, 11 - 01013 GASTEIZ
Bezeroarentzako arreta telef.: 902 32 22 32 www.cegasa.com

SUMARIOA172



7




14

GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
| Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua |
erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa.
eta faxa: 945 22 21 53 | e-mail: geugasteiz@grn.es |
www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de
zarate | aldizkariko batzordea: david alvez, edurne begiristain,
josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas
| kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain,
maite lekue, saioa fdz de arangiz, ainhoa arriaga, naraa cuesta
eta anakoz amenabar | azaleko argazkia: edorta sanz |
argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu
breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-
orrazketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak:
geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea: iñigo sarasola
| kolaboratzaileak ale honetan: jon arretxe, mundina, kike
fdz. de pinedo, txabi arnal, erlantz urtasun, diocesan-
mendizorrotzak ostarlaritza eskola | publizitatea: idoia
breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu
aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne
begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
| Ig: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Franko Itundua 48/27 zenb.
| aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago | GEU aldizkariak
ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



zeregin 4
apirileko agenda

kronika 6
abtx 07

geupertsonaiak 7
iker & eneko pou

kaletik / azken ordukoa 13
osasuna / gaztetxea

euskaltasunean. gasteiz 14
arantza basagoiti

geupertsonaia 15
kirmen uribe

**proposamenak /
haur&gazte literatura** 19
cd-a&liburua&zinea / txabi arnal

artetxokoa 20
kahina. sabel-dantza

artetxokoa 22
txiki tostado. rapsoda

batbitan 24
kaixomaitia.com

batbitan 26
kuadrilategi

batbitan 28
kutxitril ateneoa

historia&euskara 31
araba eta topikoak (III)

bidaia 32
jon arretxe

errezeta 32
kremazko tutu frijituak

umorea 33
iñigo sarasola

arababixotzian / historiazutabea 34
mundina / erlantz urtasun



15



20



22



26



28



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA

apirilak 22, igandea
Izki mendialdeko BELABIA (970m) mendira txangoa
irteera: Iovaina plazatik
ordua: 9:00etan
arduraduna: iñaki (945146296)

KULTUR ERROTA

apirilak 24, asteartea
ETXE-REN KONTZERTUA
berrizko etxe bakarlariak berak 2005ean ekoitzi zuen lehen 6 abestiko maketa eta interesa piztu zuen komunikabideetan.
horren emaitza bezala har daiteke "bidea eginez" izeneko lan berri luzea. etxe bakarlariak bere neurriko taldea osatu du, popa eta rocka edarki nahastuz. bizitasun eta indar handiko abestiak tartekatzen ditu ukitu intimoagoa duten kantuekin, baina power-popa nagusitzen da.
parral tabernan, 20:30ean

IRAKURLE KLUBA

apirilak 26, osteguna
liburua: koldo izagirre, NON DAGO BASQUES' HARBOUR, susa 1997
hikaateneoan (pintore kalea, 13), 20:00etan
dinamizatzailea: iban zaldia
>maiatzean jorratuko den liburua: truman capote, ODOL HOTZEAN, igela 1993

geugasteiz.com

ABTX 07. ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA'07

FINALA

apirilak 21, gasteizko jesus guridi auditorian, 17:00etan
araba@bertsozale.com
bertsozale.com

LITERATURA & ZINEA. HITZALDI ZIKLOA



ALVARO RABELLI: 'KARELETIK' filma aztertzen

apirilak 25, 10:30ean
HARKAITZ CANO:
'LITERATURA, GIDOIA, ZINEMA'
maiatzak 2, 10:30ean
EHUko arabako errektoreordetzako gela urdinean
(izardui komandantearen kalea, 2.-gasteiz)
eusko ikaskuntzak & EHUk antolatuta
eusko-ikaskuntza.org

GAUEKOAK

-EUSKAL DANTZA TAILERRA

apirilak 13, 20 & maiatzak 11, 18
aldabe gizarte etxean, 22:00-24:00
izena-ematea (5 euro): bertan, jarduera hasi arteko epean, 8:30-21:00 (astelehen-igandea)

-'ERREGA, SOLDADUA ETA BUFOIA'

MAIRU antzerki tailerra
apirilak 20, ostirala
aldabe gizarte etxean, 21:00
3 euro (6 euro, 30 urtetik gorakoek)
vitoria-gasteiz.org
gauekoak.com

finalistak: zigor enbeita, iñaki viñaspre, manex agirre, juan mari juaristi, ohiane perea, asier otamentdi.



GORA TABERNA

(gasteizko alde zaharra, 945121452)
KONTZERTUAK EUSKARAZ

PARRAL TABERNA

(gasteizko alde zaharra)
KONTZERTUAK, ANTZERKIA, ERREZITALDIAK, DIAPORAMAK...
EUSKARAZ
asteartero, 20:30ean

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ

ARTIUM

igandero, 11:30ean. doan
[taldeentzat (25 lagun gehienez) gidari-zerbitzua kontrata daiteke (aldeaz aurretik abisatuz. 75 euro orora, sarrera barne)]
945209010
artium.org

MONTEHERMOSO SWITCH ON THE POWER! ERAKUSKETA

-asteazkenero, 19:30
(irekia) [maiatzaren 4ra arte]
-asteartetik ostiralera, 18:00-19:00 (taldeak / aurretik hitzartu: 945161830)
montehermoso.net



IRUÑA-VELEIA

945403044 / 652720947
veleia.com

ANDRA MARI KATEDRALA

945255135
catedralvitoria.com

ARTIUM. BESTELAKO EKINTZAK

ARTIUM txikia (3-5 urte) / GOIZEAN
ARTIUMen (5-11 urte) / ARTERAKO HITZAK
argibideak & erreserbak: 945209010
sarrerak: 4 euro (helduak) / euro 1 (umeak) /
*arterako hitzak, doan
artium.org

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

AMURRIO ANTZOKIA**-ZINEA EUSKARAZ:****KUBO MAGIKOA**

apirilak 1, 17:00, 3 euro

SIN CHAN, HELDUEN INPERIOAN

apirilak 15, 17:00, 3 euro

ANDERSON, AHATETXO ITSUSIA

apirilak 12, 18:00, 3euro

-‘EURI TANTAK’**DISKOAREN AURKEZPENA**

apirilak 14

amurrioko folk taldearena

-TRIKITRAKA TRIKITRON**SAIOAREN GRABAZIOA**

apirilak 23 eta 24

txirri, mirri eta txiribitonen saioa

amurrio.org**XIBA 2007**

ekainak 2, HERRI

KIROLEN TOPAKETA

gasteizen, foru plazan

euskal herrien arteko

4. joko topaketak

izango dira. xiba, harri

jasotzea, dantza,

loko txak edota

soketira gairiditu

beharko dituzte

partaideek

eneko.aif@ikastola.netxibaaraba@euskalerrria.org**ANTZERKIA****‘HONOLULU, LEKU BAT’**

apirilak 18, 19:00etan, arabako campus-ean

gilkitxaro antzerki taldearen seigarren

antzezlan da. galder perezek idatzitako

lanak egungo bizitza ulertzeko moduz hitz

egiten du. batzutan komikoki gertatzen dira

gauzak, besteetan poetikoki, beti ere ukitu

absurduak ahaztu gabe

kultura-araba.ehu.es**GEU, TIPI-TAPA KORRIKA, GASTEIZKO 1. KILOMETROAN...**

argazkiak: irune palacios

korrika15**HUNKIGARRIA****BENETAN!****LITERATUR SARIAK****-X. IGARTZA SARIA**

idazle berrientzat sortutako literatura

sorkuntza beka da igartza. narratibako lanak

egiteko proiektuak aurkez litezke,

jatorrizkoak eta euskaraz sortuak.

irabazleak 6.000 euroko diru-laguntza

jasoko du urtebeteko epean idazlan

amaitua aurkezteko.

epea: ekainak 29

antolatzailea: beasaingo udala

(943028063)

euskera@beasain.net**- FELIX UGARTE****XIV ITZULPEN-LEHIAKETA**

epea: apirilak 27

-FANTASIAZKO IPUIN LABURREN**XV UNIBERTSITATE-LEHIAKETA**

epea: apirilak 27

kulturcampus (arabako campusa)

kultura-araba.ehu.es**FILM LABURRAK****%100 ARABA. INGURUNE MOBILA**

maiatzaren 31a baino lehenago

60 segundutako laburrak grabatu eta

montatu ahal izango dituzte 12 -18 urte

bitarteko gazteek. sorkuntza mota eta

kopuru aldetik ez dago mugarik

antolatzaileak: amaste & synmarc

lanak entregatzeko: ingurunemobil.net**EGONALDIAK FAMILIA
EUSKALDUNETAN 2007**

uztailean, abuztuan edo irailean izango dira egonaldiak

euskara ikasi edo hobetu nahian, edo

bertako euskalkia ezagutzeko asmotan

familia euskaldun batean hilabete bat edo

bi pasatzeko aukera

epea familientzat: apirilak 20

epea ikasleentzat: maiatzaren 2tik 31ra

urrats euskaltegia (943474447)

egonaldiak.net**GEU**

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA**Obra Social****Caja Vital****Vital Kutxa**

ABTX 07

Erabakita dago nortzuk ariko diren Arabako Bertsolari Txapelketaren finalean

t. arabako bertsozale elkarteak

Arabako Bertsolari Txapelketa aurrera doa bere bidean. Kanporaketa saioak eta finalerdiak jokatu ondoren, 6 bertsolarik eskuratu dute apirilaren 21ean, Gasteizko Jesus Guridi Aretoan kantatzeko txartela. Seiek puntuazio bidez lortu dute aurrera egitea. **Oihane Perea, Asier Otamendi, Juan Mari Juaristi eta Iñaki Viñaspre** gasteiztarrek, **Zigor Enbeita** izarra eta **Manex Agirre** aramaiarra izango dira txapelaren lehian arituko direnak.

Martxoaren 18an ekin zitzaion finalaurreko saioei. 100 bat lagun bildu ziren Zigoitiako aretoan eta saio arina eta gozagarria entzun zuten. Finalean izango diren **Zigor Enbeita, Iñaki Viñaspre** eta **Manex Agirre** hartu zuten parte, baita **Izar Mendiguren**ek, **Ruben Sanchez**ek eta **Felipe Zelaia**etak ere. Zortziko nagusiko ariketan elkarriketa txukunak sortu zituzten bertsolariek. **Manex Agirre** eta **Ruben Sanchez** esaterako ospitalean elkartu ziren. **Manex** itsua zen, eta ebakuntza bidez, ikusmena berreskuratu berri zuen **Rubeni** bisita egin zion. **Ikusmena** eta laguntasuna izan zituzten hizpide. **Izar Mendiguren** eta **Zigor Enbeita** berriz ama-alabak izan ziren. **Zigor** alabari hilekoa etorri zitzaion aurreneko eta amarengana joan zen izututa.

Baina ez ziren gai serioetan bakarrik aritu bertsolariak. Zortziko txikirako, makina txanpon-jalean, sariagatik eztabaidan aritu ziren **Ruben** eta **Zigor**, **Manex** eta **Iñaki Errealeko** eta **Athleticeko** jarraitzaileak egunkariari begira egin zuten topo eta **Felipe** eta **Izar** bikote ohia agentzia bidez elkartu zen osterarikotea aurkitu asmoz.

<Azken aldian buruan darabilzu hau: egingo dut edo ez dut egingo?> horrela jarri zien kartzelako gaia Irati Lotina gai-emaileak. Dene-tatik entzun genuen. Bizitzaren gogortasunaren erruz bere buruaz beste egingo zuen per-


tsionarena, hipotekak haserretzen zuena, lasaitasuna nahi eta Zuberoara joatekotan zena, eta gaixo zuen ahizpari hiltzen lagunduko ziona....

Bigarren finalerdiko saioa, Aramaioko Kultur Etxean izan zen martxoaren 25ean. **Oihane Perea** nagusitu zen, eta haren atzetik, **Asier Otamendi** eta **Juan Mari Juaristik** eskuratu zuten finalerako txartela. 100 entzule inguru bildu ziren eta bertan erabaki zen finaleko seikotea. Sailkatu zirenez gain, **Rikardo Gonzalez de Duran**ak, **Andere Arriolabengo**ak eta **Serapio Lopez**ek kantatu zuten. **Juaristik** eta **Lopez**ek, aita-semeen larruan, arratsaldeko ofiziorik interesgarrienetako bat osatu zuten. **Aita Vietnam**en izana zen, eta oraingoan semeari hotsegin zioten Irakera soldadu joateko. Irabazi ezin den gerrara joateko gogorik eza azaldu zuen **Lopez** semeak, eta aitak, **Azoreetako** argazki buruan, agintariekin joan behar balute gerrarik izango ez zela azpimarratu zuen.

Zortziko eta hamarreko txikiko lanetan ere, hiru lehenak erregulartasunez aritu ziren, hutsik gabe. Kotxeko karneta atera berri, **Perea** aitarekin aurreneko zihoan autoko bolantean. Eta **Juaristiri**, bertso saio erdian argia joan eta gero, **Gonzalez de Duran**ak eskua izterrean jarri zion ohol-tza gainean zeudela. Saioko lanik umoretsuena osatu zuten.

Horrela iritsi ziren kartzelako lanera eta **Perea** eta **Gonzalez de Duran**aren lanak nabarmendu ziren. Egunkariko berriak pentsarazi zieten gogoeta plazaratu zuten bertsolariek. **Perea**ek, emakumeek jasotako tratu txarrak eta bere egoera pertsonala marraztu zituen; **Gonzalez de Duran**ak, **AHTren** erruz, bizitza aldatuko zaionaren papera hartu zuen.

Txapelerako hautagaiak erabakita daude beraz, **Gasteizen** izango da zita, apirilaren 21ean, **Jesus Guridi Aretoan**●




POU ANAIK

*“Ezin izango
genuke
bizitza
ulertu
mendirik
gabe”*

**iker**

Pou anaiak. Iker eta Eneko. Euren hitzetan, “binomio” ona osatzen duen eskalatzailleen bikotea 2003an martxan jarritako asmo handiko ‘7 pareta 7 kontinente’ proiektua gauzatzeko zorian dago. Erronka honen inguruan mintzatzeko, baina baita anaia gasteiztarak gertutik ezagutzeko asmoz ere, solas egin dute GEUrekin.

**eneko**



t. saioa fdz de arangiz

a. edorta sanz

Lehenik eta behin, zorionak. Jada zuen '7 pareta 7 kontinente' proiektuko seigarren erronka lortu duzue, hain zuzen, Argentinako Fitz Roy mendia garaitu duzue 'Supercanaleta' bidetik, laguna den Fernando Irrazabal argentinarrearekin batera. Baina zailtasun ugari aurkitu dituzue bidean, ezta?

Eneko Pou: Egia esan, azkenean gauzak oso ondo aterara dira. Iaz jada Fitz Roy mendian lehenengo saialdia egin genuen baina ez genuen lortu. Baina oraingoan igaro den urtean izan ez genuen zortea izan dugu. Lehenengo astean iritsi eta egun horietan lortu genuen pareta igotzea. Bigarren saialdi honetan, zailagoa den 'Supercanaleta' bidetik igo ginen. Hara joan ginen lehen aldian bost saialdi egin genituen baina ez genuen lortu, eta oraingoan heldu bezain laster lortu genuen. Izan ere, azken bidaia nahiko estresantea izan zen. Urtarrilaren 1ean Madriletik ateratu eta 2an heldu ginen kanpamendu nagusia zegoen herrira. Bertan eguraldi oso ona egingo zuela esan ziguten. 3an, jet lag eta

guzti, dena prestatu eta 4an paretaruntz abiatu ginen. 25 kiloko motxilarekin 10 ordu inguru ibili ostean, hurrengo eguneko 14:00-etan hasi ginen pareta eskalatzen, 1.700 metro igo genituelarik. Hala ere, ez genuen gure asmoa lortu, hots, egun horretan bukatzea. Pareta oso gaizki zegoen, elur eta izotz asko zegoen eta hori izan zen arazoa.

Iker Pou: Orduan vivac egitera behartuta egon ginen, hau da, paretan zintzilik igaro behar izan genuen gaua, inolako materialik gabe; ez dendarik ez lozakurik gabe. Hau izan zen gogorrena. Ezinezkoa egin zitzaigun dena egunean bertan egitea.

Zer pasatzen zaizue burutik momentu larri horietan, gaua hainbesteko altueran esekita eman behar duzuela?

Iker: Eserita igaro genuen gaua, hirurok elkar besarkatuta... Eskerak su txiki bat eraman genuen eta orduro te bat hartzeko gai izan ginen. Honi esker izozketetatik babestu ginen. Bertan gaueko 10etatik goizeko 8ak arte egon ginen. Oso-oso gogorra, benetan.

Eneko: Besarkatuta eta hitz egi-

ten eman genuen gaua... kar, kar... baita gorputza mugitzen ere, baina dardarka gau osoa... orain barre egiten dugu baina oso gogorra izan zen.

Eta azkenean erronka lortu zenu-ten...

Eneko: Hurrengo egunean goraino igo eta mendiko beste paretatik jaitsi ginen, errazagoa zelako. Bertan loari aurre egin behar izan genion. Egundako eman genituen ondo lo egin gabe (bidaia, jet lag...) eta bata bestea esnaraziz aritu ginen paretatik jaisten ginelarik... kar, kar. Oso nekatuta heldu ginen

herrira, lau egunetan ia ez genuen lorik egin eta pisua ere galdu genuen. Ikerrek hiru egunetan lau kilo galdu zituen eta herrira nekez heldu ginen oinez. Gainera, hasierako izozketak izan genituen baina hogeita egunetan edo

sendotu ginen. Azkenean, bai, lortu genuen!

Merezi al du hainbesteko sufri-mendua eta arriskuak pasatzea?

Iker: Nik uste dut baietz..., batez ere, gero ondo ateratzen denean. Zure helburua lortzean bizitzen dituzun sentsazioak direla eta, merezi du, bai.

"orain barre egiten dugu baina oso gogorra izan zen" (eneko)

Orain arte egindako 6 etapetatik zein da zuentzat bereziena?

Eneko: Guztiek izan dute zerbait. Yosemite egin genuen El Niño bidean akaso era askean eskalatu dugun paretarik politena izan da. Estetika aldetik ederra da eta eskalatzaile batentzat denetarik dauka: pitzatuak, plakak, tximiniak, diedroak... Teknikoki ere nahiko zaila da. Asturiaseko Naranjo de Bulneseko Zunbeltz, berriz, eskalatu dugun arrisksuenetarikoa izan daiteke. Beldur handia pasa genuen baina baliteke egin dugun paretarik onena izatea. Kuriosoa da, kontuan hartzen badugu etxe ondoan dagoela. Bestalde, Madagaskarrekoa oso bidaia polita izan zen, jende harrigarria benetan. Ozeaniakoa, ostera, estetika aldetik oso eskalada ederra dela nabarmenduko genuke. Asiako paretan egindako eskalada handiena izan zen; bate-tik, zailtasun handia duelako eta

bestetik, altuera handian egin genuelako, 6.300 metrora, alegia. Azkenik, Patagonian alpinismoko bide mitikoa igo dugu, kranpoiak eta pioletak erabiliz eta beraz, besteek ez zeukatena gaineratu dugu honetan.

Hortaz, egindako proiektuaren balorazioa ezin hobea da, ezta?

Iker: Oso ona da. Oso ongi pasa dugu. Nahi izan dugun tokietara joan gara, batzuetan gogorra, bestetan lasaiagoa. Baina oro har oso ongi. Gainera ez goaz bakarrik. Gurekin datorren ekipoarekin ere oso ongi ibili gara. Etapa guztiak grabatu ditugu ETBrako eta gurekin etorri ohi dira gehienbat Javi Bariazarra, Gotzon Arribas kamara gasteiztarra eta behin Arkaitz Mugika gasteiztarra ere etorri zen. Azkenean denak dira lagunak eta

oso ondo moldatzen gara. Ez dugu arazorik izan.

Hurrengo eta azken etapa Antartida ezezaguna duzue. Noiz daukazue pentsatuta joatea eta nola egingo diozue aurre kontinente izoztuari?

Iker: Hala da. Dena den, oraindik ez dakigu ziur zein paretara egingo dugun. Oso zaila da Antartidara etapa antolatzea, baita dirua lortzea ere. Horretan gaude memento honetan.

Eneko: Antartidan ere izotzik gabeko paretaren bat egiten saiatuko gara, nahiz eta izotza ingurutik egongo den, arroka baita gure espezialitatea. Joatekotan oso etapa polita izango da. Gure asmoa hara belatontziz heltzea izango da eta hori dela eta, eskalatzen hasi aurretik barkuan emango ditugu hamar bat

**“zure helburua lortzean bizitzen dituzun sentsazioak direla eta, merezi du”
(iker)**

gertutik...

Duzun biziorik handiena?

Iker: Pastelak.

Eneko: Orokorrean jana. Asko gustatzen zaigu jatea, baina askotan zaindu behar dugu jaten duguna ez loditzeko.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

I: Ez dakit esaten.

E: Hipokrisiak.

Telebista saio bat?

I: Albistegiak ikusten ditut bakarrik, baita pelikularen bat ere.

E: Gutxi ikusten dugu telebista.

Filmik gustukoena?

I: ‘En el nombre del padre’ Askotan ikusi dut.

E: Nahiko zaharra den ‘El nombre de la rosa’.

Jaki gozoren bat?

I: Pastelak, berriro ere.

E: Amaren limoizko tarta.

Fobiarik, beldurrik?

I: Leku oso itxiak ez zaizkit gustatzen.

E: Nik ere nahiago ditut leku zabalak, itxiak baino.

Oporrak non eta zertarako?

I: Adibibidez, Costa Rican,

surfa egiteko.

E: Kanadan, neguan, mendien artean dagoen egurrezko etxetxo batean, konpainia onean eskiatzera joateko.

Eta nora ez zinateke joango?

E: Hiri handi batera.

I: Ez ginateke bueltatuko, esaterako, Mexiko D.F.-ra. Kaos bat da hiri hori.

Liburu bat?

I: Klasikoa den ‘Los pilares de la tierra’.

E: Azkenengo bidaian irakurri nuen ‘Breve historia de la Argentina’.

Musika gustukoena?

I: Gehienbat hemengo rocka entzuten dut.

E: Deneta-

tik entzuten dugu. Lagunek pasatzen digute musika.

Zer da Gasteizek duen onena? Eta txarrena?

I: Onena, lasaitasuna eta bizikletaz edonora joan zaitezkeela. Txarrena, diru gehiegi gastatzen dutela estetikari.

E: Txikia eta orokorrean oso berdea dela. Txarrena, berriz, pisuen prezioak, adibidez.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

I: Zaila da.

E: Nahiko zaila da, eguneko bizitza ez delako erraza. Dena den, gero eta gehiago entzuten da.

Amets bat?

I: Orain bezala jarraitzea.

E: Mendiaz bizi ahal izatea eta jubilatzea honetaz.

Amesgaizto bat?

I: Urte batzuk barru lantegi batean lanean ikustea nire burua...

E: Bai, hori, bai...



egun. Bestetik ere, nahiko arrisku-
tsua ere bada, Antartida logistikoki
zailtasun handiko lurraldea baita.
Baina erronka ederra da guretzat.

**Zer ekarri dizue, kirolari eta per-
sona legez, 7 pareta 7 kontinen-
te proiektua gauzatzeak?**

Eneko: Zalantzarik gabe, amets
bat aurrera ateratzea. Nik uste gure
ekintzak duen gauzarik politena
kirol hutsa baina gehiago dela da.
Hau da, leku asko bisitatu ditugu
proiektu honi esker. Egia esan, ia
munduari bira eman diogu. Alde
batetik, haxe egiteko aitzakia izan
da proiektua. Bizipenak izugarriak
izan dira eta proiektua martxan jar-
tzean ez genuen pentsatzen halako
erronka egiteko gai izango ginela.
Urteak igaro dira eta gauzatzea
lortu dugu, beraz, oso positiboa
izan da guretzat.

**Hortaz, proiektuaren beste alde
bidaia izan dira. Zein da gehien
gustatu zaizuen herrialdea?**

Iker: Oso zaila da
esatea, denek daukate
zeozer. Ezberdinena
akaso Afrikako Mada-
gaskar izan da, ez
dauka zerikusirik hone-
kin, oso exotikoa da
eta kontrastea handia
izan zen, asko gustatu
ziztaigun. Baita Pakistan ere.

Eneko: Egia da *hirugarren mun-
duko* herrialdeekin ikusten duzula
kontraste gehien. Hala ere, Estatu
Batuetan ere kontrasteak ikusi
genituen. Uste dugu pelikula asko-
tan ikusi dugulako dagoeneko
dena ezagutzen dugula, baina bat-
batean bakeroz jantzitako gizon
edo kamioi erraldoi bat ikusteak
harritzen zaitu erabat. Bestetik,
Australiako jendea ere oso jatorra
da eta Patagonian ere kriston
harremana lortu dugu bertakoekin.
Orora bi hilabete inguru eman ditu-
gu han.

**Proiektuarekin amaitu eta mundu-
ko paretarik zailenak zuen esku**

**“gure momen-
turik onenean
gaudela esan-
go nuke”
(eneko)**

**egongo dira. Zein da hurrengo
urratsa? Etorkizuneko planik...**

Iker: Ez dakigu, zerbait asmatu
beharko dugu... pentsatzen hasi
beharko gara... kar, kar.

Eneko: Pena izango litzateke
orain dena uztea. Gure momenturik
onenean gaudela esango nuke, fisi-
koki oso ondo gaude eta esperien-
tzia aldetik asko dugula esan daite-
ke. Mendian ezinbesteko bi
elementuak dira hauek.

**Pou anaiak beti batera aurre
egiten diezue proiektu guz-
tiei. Haxe izan daiteke
zuen arrakastaren gakoa?**

Iker: Bai, anaiak izateak
gauzak asko errazten ditu.

Txikitatik ezagutzen gara, be-
ti eskalatu dugu elkarrekin. Anaiak
izanda badakizu noraino iritsi zai-
tezkeen, adibidez, haserretzen
zarenean. Askoz gehiago jasa-
ten duzu, gehiago ezagutzen
duzu pertsona eta errazagoa
suertatzen da eskalatzea.

**Eta zer eskaintzen dio norbe-
rak bikoteari?**

Eneko: Bakoitzak bere norta-
suna. Biak nahiko urduriak
gara, baina Iker ni baino askoz
gehiago. Mendian ere bakoitzak
bere izaera dauka, norberaren ibil-
bidea dela medio. Iker, esaterako,
arroka munduan egon da beti eta
nik, bestetik, alpinismo gehiago
egin dut. Hortaz, bion experien-

**“anaiak iza-
teak gauzak
asko erraz-
ten ditu”
(iker)**

tziak bateratzen ditugu eta nire
aburuz, azkenean sortzen den bino-
mioa oso ona da.

**Nola hasi zineten eskaladan eta
mendian?**

Iker: Txikitatik beti ibili gara men-
dian. Oporretan gurasoekin joaten
ginen Pirinioetara eta aitak ere
eskalatzen zuen. Horrela, eskaladak
eta 3.000ak egiten genituen. Hel-
dua zarenean, edo uzten duzu edo
mendian jarraitzen duzu, eta gure
kasuan, jarraitu egin dugu mundu
honetan.

Zer da mendia zuentzat?

Eneko: Txikitatik egin dugunez,
ezin izango genuke bizitza ulertu
mendirik gabe. Azkenean ohituta
zaude mendira joatera eta ihesbide
garrantzitsua da guretzat. Orokorki
esanda, ez dugu hirian denbora
luzez irauten. Naturan
egotea gustuko dugu
eta dudarik gabe, eska-
lada ez ezik, mendia da
gure bizitzako zati oso
garrantzitsua, mendian
egiten diren kirolak eta
natura, hain zuzen.

**Mendirik gabeko
lurraldean jaio izan bazinate, zein
izango zatekeen Pou anaien lanbi-
dea?**

Iker: Kar, kar..., ez dakit, baina
kirola ziur asko bai...

Eneko: Akaso naturarekin erlazio-
natutako edozer gauza. Beti esan



dugu, kostaldekoak bagina surfa eta halako kirolak egingo genituzkeela, betiere, naturarekin harremana dutenak. **Zergatik aukeratu duzue Gasteiz kanpamendu nagusi gisa?**

Iker: Orain lrun eta Gasteiz artean bizi naiz, baina beti gustatu zait Gasteizen bizitzea eta hemendik denbora gutxira hemen geratuko naiz. Gure iritziz eskalatzeke Euskal Herriko hiri onena da, entrenatzeko eta arrokan eskalatzeke leku guztiak oso gertu baitaude.

Eneko: Bai, kirolerako Gasteiz oso hiri ona da, kirolzale guztiek esaten dute. Guk oso ondo saltzen dugu kanpoan gure hiria, eta egia da, berdegune asko ditu eta kirol egiteko leku anitz.

Gasteizko gaua atsegin duzue? Non?

Iker: Etxean... kar, kar... gutxitan irietzen gara parrandan, baina egitekotan Kutxi aldean egon ohi gara buelta bat ematen.

Eneko: Gure lana dela eta, irtetzea ez zaigu asko komeni, baina egia ere bada, noizean behin bururako komeni zaigula eta gustuko dugula lagunekin irtetea.

Mendiaz gain, zer egin ohi duzue aisialdian? Zeintzuk dira Pou anaiei zaletasunak?

Iker: Denbora gutxi izaten dugu aisialdirako. Batzuetan surf egitera joaten gara, baina ahal dugunean beti eskalatzera. Lagunekin egotea ere gustuko dugu.

Eneko: Niri zinema asko gustatzen zait, baita liburuak irakurtzea ere●



7 PARETA 7 KONTINENTE

2003 urtean ekin zioten Pou anaiek proiektuari. Xedea, kontinente bakoitzeko paretarik esanguratsuen edota zailena era askean eskalatzea. Hots, munduari bira egitea, bira bertikala hain zuzen ere. Zazpi dira garaitu beharreko gailurrak eta jada sei eskuratu dituzte: Estatu Batuetan (Yosemite) El Capitán gailurreko El niño bidea, Asturiasen Naranjo de Bulneseko Zumbeltz bidea, Afrikan Madagaskarreko Tsaranoro gailurreko Bravo les Filles bidea, Ozeanian Tazmaniako Totem Pole, Asian Pakistaneko Izen gabeko dorreko Eternal Flame bidea eta azkenik Argentinan Fitz Roy gailurreko Supercanaleta bidea. Hurrengo eta azkenengo urratsa: kontinente izoztua, Antartida.

Leku hauek guztiak aukeratzeko orduan hiru izan dira kontuan hartutako irizpideak: batetik, kontinente bakoitzaren adierazgarri izatea. Bigarrenik, zailtasuna hartu dute kontuan, era askeko paretak onak eta zailak izatea, alegia. Eta azkenik, irizpide pertsonala, hau da, "guk nahi genituen paretak eskalatzea. Guk asmatutako proiektua da eta guk nahi izan dugun bidetik eraman dugu", azaldu dute Pou anaiek.

Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

LA RIOJANA
jatetxea

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

on egin!

Aitzogile kalea (Kurru), 33 tfnoa. 945 25 02 39

geugasteiz.com

Bacalao Giraldo

Eguneko makailu gesaldua
Makailua eramateko prest
36 errezeta ezberdin

Bacalao Giraldo

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldarian plaza
GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13

Tl. 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA

Harategia



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 % 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 % 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

El Clarete

JATETXEA



UNAI ETA PATXI FERNANDEZ DE RETANA
ZERKABARREN KALEA, 18

01008 GASTEIZ

945 263 874

IRYSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak



Zure arropa eta oinetakoa

www.sariudenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710



Erregidun, eskeletozko eta eskeletozko

JANTOKI
VEGETARIANO

SAN FRANCISCO XABIERKOAKEN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 93

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztekoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

EYSKAL LABELA

LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko

haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24

Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones

Pinedo

Jantziak

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa: 945 23 39 90



EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.

Goiain Industrialdea

Tl/Fxo: 945 465 921

Tl. 627 417 747

info@egur.es

www.egur.es

01171 Legutiano (Araba)



eusko

alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea



Gazte

Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

bitxiak / zilarra / osagarriak

etor zaitetz udaberriko bilduma ezagutzera!!!

serafin ajuria 13-behea | gasteiz 01008 | 945222130



OSASUNA, MUNDUKO ONDASUNA

Ondasun erosezina den heinean zaindu beharreko altxor preziatua da osasuna. Askotan entzun ohi da bakarrik galtzen dugunean, oroitzen garela osasunaz. Gauzak horrela, bizitza osasuntsua eramaten saiatu beharko ginateke etorkizunean osasunaz gozatu ahal izateko. Horretarako, bakoitzak bere bideak bilatzen ditu: kirola egitea, elikadura zaintzea, bizioak ekiditea... Bestelako hamaika proposamen daudelakoan, kalera irten gara Gasteizko jendeak osasunaren inguruan uste duena ezagutu nahian.

-Zenbateko garrantzia ematen diozu osasunari?

-Egungo gizartea kontziente al da osasunaren garrantziaz?

-Bizimodu osasuntsua daramazu? Nola?



MARIASUN DIEGO, IDAZKARIA

-Ume bat izan ostean, nabarmentzen dut garrantzi gehiago ematen diodala osasunari.
-Kontzientzia badaukagula esango nuke. Nire inguru-koak kezkatu egiten dira osasunaz, eta orokorrean bizitza osasuntsua daramate.
-Gehienok egiten duguna. Ondo jaten saiatzen naiz, eta kirola egin ohi dut. Denbora dudanean bizikletaz ibili eta mendira joaten naiz.



IRUNE ELORZA, IKASLEA

-Garrantzia ematen diot, eta horregatik kirola egiten dut eta era osasuntsu jaten saiatzen naiz. Frutak, barazkiak... denetarik jaten dut.
-Gizartea gero eta gehiago kezkatzen da osasunaz, eta kirola egitea izan beharko litzateke osasuntsu egoteko bideetako bat.
-Erretzeari eta edateari uztea oso beharrezkoa da osasuntsu egoteko. Nik ez dut inoiz probatuko, uztea zaila dela diotelako.



JOSEAN BARBERO, LANTEGIKO LANGILEA

-Orokorrean garrantzia ematen diot osasuntsu egoteari.
-Batzuek gehiegizko garrantzia ematen diote osasunari, eta beste askok bat ere ez. Gaur egun dugun bizitza estresantea dela eta, bizitza kalitatea txarragoa dela esango nuke. Lan ordu gehiegi izateak eta egun osoa gelditu gabe egoteak eragina dauka gure osasunean.
-Kirola egitea gustatzen zait, baina erretzen dudala aitortu behar dut.

AZKEN ORDUKOA

GASTEIZKO GAZTETXEAREN KOMUNIKATUA. 07/03/21

Hasiera batean bosgarren dorrea izan zen, ondoren merkatal gune erraldoi bat, ostean lurrazpiko aparkalekua... Zein izango da hurrengoa?

Anitzak izan dira udal honek Gaztetxea botatzeko asmatu dituen trikimailuak, eta oraingoan beste iruzur bat sinestarazi nahi diote jendarteari, ondo landutako iruzurra. Duela egun batzuk, udal arkitektuen buruak hirigintza zinegotziaren aginduz burututako txosten bat heldu zitzaigun esku artera. Dokumentu honetan Gaztetxea erortzeko zorian dagoela adierazten da, eta eraikinaren egoera egiaztatzeko asmoz, kanpotik ateratako hiru argazki ziztrin agertzen dira bertan.

PERI-aren kiratsaz kutsatua dagoen gure Alde Zahar honetan ez da harritzekoa udalaren joko zikin berri hau. Udalak gorrarena egiten jarraitzen du beste alde batera begiratu, diruaren hotsari, hiritarren oihuari baino garrantzi gehiago emanez. Alde Zaharreko kale-kantoietan jarri dituzten malda mekanikoek, aisialdirako gunerik gabe utzi gaituzten zundaketek eta egin nahi duten parking erraldoiak, besteak beste, udalaren estrategia biluzten du, hau da, Alde Zaharra auzo-eskaparate bihurtu nahi duela argi uzten du. Alde Zaharraren suntsipenaren hurrengo pausoa gu gara. Euren burua babesten saiatu dira gasteiztarrei etxe hau erortzeaz dagoela sinestarazi nahian, baina berriro ere benetako asmoak azaleratu egin dira. Argi dago Gaztetxearen erauzketak asmo politiko ugari dituela, behin baino gehiagotan jaso baititugu udaleko politikarien mehatxu eta erasoak.

Zenbat mehatxu gehiago jasan beharko ditugu? Ask! da!! Nazkatuta gaude hainbeste aldiz gauza bera errepikatzeaz. Gasteizko hiritarrek argi utzi dute behin baino gehiagotan: Gaztetxea muinoan geratuko da!! 19 urte hauetan zehar egindako lanak legitimatzen gaituela adierazi du Gasteizko biztanleriak. Gogora dezala udaleko espekulatzailerik talde horrek, 2002ko martxoaren 23an egindako manifestazio hura edo 2005eko urriaren 8an egindako gaztetxe eguna, non 15.000 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte.

Zer gehiago behar dute udal agintariek Gaztetxeak muinoan jarraituko duela ikusteko?●

ASKI DA!!

**GAZTETXEAREN ERAUZKETARI EZ!!
ALDE ZAHARREAN INPOSAKETARIK EZ!!**



Arantza Basagoiti

Arantza, Bilbon jaio zen gasteiztarra dugu. Gasteizen lasaiago bizi garela uste du eta paseatzea, lagunekin ibiltzea eta txokolate beltza dira bere zaletasunak. Oso emakume aktiboa da, gizarte gaietan inplikazio handia erakusten du eta oso burugogorra dela onartzen du.

“Gizarteko gaietan parte hartzeko horrenbeste eragozpen egoteak nire onetik ateratzen nau”

t. naroa cuesta & ainhoa arriaga

a. edorta sanz

Duzun biziorik handiena? Ez dut uste esan daitekeenik.

Bertuterik? Atsegina naizela uste dut eta nahiko bilbotarra (barre artean).

Akatsik? Oso burugogorra naiz eta batzuetan ikuspegiz aldatzeko oso astuna.

Zer baloratzen duzu gehien zuregan? Aurrera egiteko gogo.

Fisikoki zerk erakartzen zaitu gehien besteengan? Eskuek.

Zer eskatzen diozu bizitzari? Bizitzari ezer ere ez, nire buruari itzarririk egoteko eskatzen diot.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Adibidez, parte hartzeko eragozpenek, bai fisikoek bai bestelakoek. Guk jartzen ditugunak eta jartzen dizkigutenak.

Egunkari bat? Nik, normalean, El País irakurtzen dut eta azkenaldi honetan La Vanguardia, asko gustatzen zaidan elkarrizketa berezia agertzen da amaieran, honen antzekoa.

Beldurrik? Gauza konkretuei bainoago, jarrerei diet beldurra, barneko ezinegonei.

Oporrak non eta zertarako? Ez da inportantea nora goazen, norekin goazen baino. Lagunekin edo familiarekin gustatzen zait oporretan joatea.



Nora ez zinateke joango? Inor ezagutzen ez dudana lekuren batera.

Eguna ala gaua? Eguna.

Gasteizen eguna non? Erdigunean, Plaza berrian, La Unión tabernan... la-ia edonon, oso kaletarra naiz.

Zer deritzozu alde zaharrean jarri dituzten malda mekanikoen inguruan? Ez ditut ikusi, baina politikak direla esan didate. Hala ere, eskuragarritasun falta nabaria da.

Liburu bat? Ez da erraza, asko esango nituzke. Bat esatearren, '100 años de soledad' aukeratuko dut, urteurrenean daudela.

Film bat? 'La vida secreta de las palabras', orain dela gutxi ikusi baitut.

Musikari bat? Paolo Konte.

Zer da Gasteiz duen onena eta txarrena? Onena, Gasteiz bera da, duen garbitasuna, parke ugari, kale zabalak... Txarrena, hirian integritatea nahiko zaila dela da, kostatu egiten da, hiriaren parte izateko denboratxua behar izaten da.

Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Ez, gaur egun ez dut uste guztiz posiblea denik. Gainera, errua euskaldunona dela uste dut. Hobera joateko, dakigun hori erabiltzea beharrezkoa da, egun on bada dakigun bakarra, egun on esan behar da.

Amets bat? Nire buruaren jabe izatea.


Amesgaiztorik? Ez dut.

Iragana, gaur eguna ala etorkizuna? Gaur, beti gaur.

Zer eskatzen du herriak? Batek daki. Beren bizitza bizi ahal izatea, gehienek.

KIRMEN URIBE

“Gasteiz ikaragarri aldatu da azken urteotan eta nabarmenena euskararen erabilera dela esango nuke”



Gasteizko Magisteritza fakultatean emandako hitzaldi baten ostean harrapatu dugu Kirmen Uribe. Bere azken proiektuak, Gasteizen bizitako garaiak eta hiriari buruzko aldaketen inguruan solasaldi bat izateko GEU Kirmen Uriberekin izan da.

t. maite lekue a. edorta sanz

Durangoko azokan Portukoplak liburua aurkeztu zenuen, zineman ere Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta konpainiarekin New Yorkera egindako bidaiaren inguruko film luzea ikusgai izan dugu. Zertan ari zara orain? Ze proiektu duzu esku artean?

Proiektu luze batean nago orain, nobela bat egiten ari naiz. Kontatzen duena hegaldi bat da, Loiuko aireportutik New Yorkera doana. Lan hau nire barruan ari da sortzen, nire barruan idazten ari da eta pixkanaka-pixkanaka ateratzen joango naiz. Azken urteetako lanaren emaitza izango da hauxe, azken sei urte hauetan sentitutakoa, bizitakoa, go-goetan izandakoaren emaitza. Honenkin beste fase bat hasiko dut.

Gasteizen bizi izan zinen unibertsitate ikasle garaian ere. Nola gogoratzen dituzu garai haiek? Nola bizi izan zenituen garaiko ostegunak?

Nik uste dut oso gau bereziak zirela, jende asko ateratzen zen garai haietan, batez ere hasierako urteetan. Unibertsitatea ikasketak egiteko gunea da, baita norberak bere

burua ezagutzeko eta aurkitzeko garaia ere. Nik bi hauek aurkitu nituen. Euskal Filologia ikasketak egin nituen eta pozik nago egin nuen hautuarekin, baita izandako irakasleekin eta giroarekin ere. Beste kalea da. Pedro Axularrek esaten du berak Salamancan ikasi zuela eta Salamancan Unibertsitatea zegoela baina baita deabruaren leizea ere. Nire ustetan hemen Gasteizen deabruaren leizea Kutxin zegoen.

Urte hauetan Gasteizen aldaketa nabarmenik sumatu al duzu?

Bai, ikaragarri aldatu da Gasteiz. Nabarmenena euskararen erabilera dela esango nuke. Gu lehen Kutxi eta Zapan ibiltzen ginen, baita Gasteiz ere, eta giro horretan mugitzen zen jende gasteiztarra erdaldu-na zen. Gero gu geunden, herrietatik etortzen ginen euskaldunak, eta giro horretan ibiltzen ginen euskaldunak gu izaten ginen. Oso pozgarria da hogeï urterekin ezagutu nuen jendeak, hogeita hamar urterekin euskaraz hitz egiten dizula ikustea.

**“oso pozgarria da
hogeï urterekin eza-
gutu nuen jendeak,
hogeita hamar urtere-
kin euskaraz hitz egi-
ten dizula ikustea”**

baita zinegileak ere. Hasten ari denak konfiantza, formakuntza eta laguntza behar du. Artistak bere buruan sinetsi behar du, babesa behar du eta horrelako guneak tokiak dira, zure lanak egiten haste-ko lekuak. Nik oso positiboa ikusten dut ekimen hau.

Hainbat musikariren konpainian ikusi zaitugu askotan, zuk idatzita-koari doinua jarri diote behin baino gehiagotan. Baina zein musika mota entzuten du Kirmenek bere etxean?

Etxean eta autoan musika entzutea ezberdina da. Autoan rocka entzuten dut, musika bizia eta kantuan joaten naiz askotan. Etxean aldiz, musika lasaiagoa entzuten dut, Jazz berria, klasikoa... Norah Jones, Pop amerikarra, Yo la tengo bezalako taldeak... Musika klasikotik Bach zalea naiz eta Mozart gero eta gehiago gustatzen zait.

Eta euskaraz musika entzutean zer duzu gustuko?

Ba lagunak egindakoa. Mikel Urdangarin eta Rafa Rueda, hauek etengabe entzuten ditut eta bestetik, Ruper Ordorikak markatu egin nau eta Txuma Murugarren, besteak beste, entzutea gustatzen zait.

Idazleen ikuspuntutik eta idazleen kolektiboa talde konprometitua izanik, zerbait egin al daiteke idazlearen perspektibatik euskal gatazkaren konponbidean?

Kolektibo bezala ez dakit. Askotan uste dut idazleoi gehiegi eskatzen zaigula. Edozein agerraldi publiko baldin badago idazle batek edo idazle talde batek hor egon behar izaten du. Eta nik uste gehiegi eskatzen zaigula idazleoi. Guk ere lan egiten dugu, hortatik bizi gara eta horrek nahi eta nahiez markatzen



Gasteizen KREA artegunea sortzen ari dira gazte artistentzako txoko eta espresabide bezala. Beharrezkoa al dugu gazteok honelako zentro bat?

Bai beharrezkoa da, batez ere sortzeko eta formatzeko. Nik uste dut artistak hasieran laguntza behar duela, bai idazleak, bai arte plastikoak egiten dituenak,


zaitu. Talde moduan ez dakit zer egin daitekeen, baina pertsona moduan bai. Ni saiatzen naiz Kirmen moduan alde batetik zubiak eraikitzen eta beste alde batetik ez oso muturreko jarrerak agertzen eta gauzak lasaitzen. Baina nik nire usteak baditut, nire ideiak eta nik herri hau bizi dadila nahi dut, herri bezala, herri plurala izan dadila eta pluraltasun horretan gizabanakoa askea izan dadila. Nik neurri honetan lan egiten dut.

Zu ondarrutarra izanik eta portua mundu berriei zabalduetako atea izanik, nola ikusten duzu saldu nahi diguten integrazioaren gatazka?

Gure herrira galiziarrek etortzen ziren marinel bezala gu txikiak ginean, eta baita gaur egun ere. Marinel batzuk txalupan bizi ziren eta ez zuten etxerik izaten, txalupan bizi ziren. Beste batzuk aldiz, Ondarruko emakumeekin ezkontzen ziren, seme-alabak izaten zituzten eta hauek orain euskaraz hitz egiten dute, baita marinel haiek ere hitz eta esatera askotan. Hor dago kontua, barkuan geratzea ala portura jaitsi eta jendearekin nahastea. Baita alderantziz ere, hemengo jendeak hori onartu behar du eta pertsona bat barku hotz batean bizi ez dadin saiatu behar gara.

Gasteizen azken aldian aldaketa ugari izaten ari da, Artium-ekin hasi, Alde Zaharreko aldapa mekanikoak, tranbiaren etorrera... Gasteiz hiri moderno ala modernitate hiriaren zerbitzura?

Gasteizek baditu bere alde modernoak, baina oraindik ere hiri txikia da eta ez da egindako hiri bat oraindik. Bilbo eta Donostiaren joera modernozaleagoa dela uste dut. Urte gehiagotan egindako aldaketak dira, belaunaldi gehiago daude eraldakuntza horietan. Gasteiz aldiz, oso arin hazi den hiri bat da eta duela berrogeita hamar urte oso txikia zen



“geu-k lortu du euskaldunak batzea, aldizkari moderno bat egitea, itxura modernoak ematea euskarari eta euskara harremantzea gizarte moderno bateko tresna bezala”

GEU ALDIZKARIKO irakurleentzat Kirmenek udaberrirako proposamen hauek luzatzen dizkigu:

Eleberri bat: 'BROOKLYNGO EROKERIAK', PAUL AUSTERRENA

Poesia liburu bat: JOSEBA SARRIONANDIAREN 'IZKIRIATURIK AURKITU DITUDAN ENE POEMAK'

Musika talde bat: BERRI TXARRAK

Pelikula bat: LITTLE MISS SUNSHINE

Film laburra: AITZOL ARAMAIOREN 'TERMINAL'

hiri hau. Denbora behar du, baina hala ere posibilitate asko dituen hiri bat da. Behar dena jendeak horretan sinestea da eta erakundeek ere ideia hori zabaltzea, hiri zabal bat, hiri berrizalea. Uste dut hala ere oraingo agintarien aldetik, oso gutxi egin dela alde horretatik, atzerapausoak

egin direla neurri horretan. Larogearren hamarkadan erakundeen partetik gogoak zegoen, eta baita hiriaren partetik ere, Gasteiz benetan hiriburua izan zedin. Oraingo agintarien helburua ez dakit ote den Espainiako probintzia bateko hiritxoa bat izatea. >>

Euskal olerkari batzuek materiala eskaintzen diozue hainbat musikari-ri. Gazteok poesia gutxi irakurtzen dugun garai honetan musika poesiarentzako bide berri bat al da?

Bai, dudarik gabe eta mundu mailan gertatzen ari da hau. Errezitalak egitea, poesia biziartzeko bidea da. Urte gehiegi egon gara poema liburuak ateratzen eta oso irakurle gutxi izaten. Hor gazteen aldetik aldaketa bat izan da. Musikarekin elkarlanean ibiltzea, irudiaren munduarekin elkarlanean ibiltzea eta diziplina desberdinak nahastea da aukera, irakurlearengana joatea, ez itxarotea.

Musikaren mundua oso mundu ederra da poesiarentzat, nahiz eta poema guztiak ezin diren musikatu.



Nola ikusten du euskal poetak New York?

New York oso hiri bizia da, mundu osoko jende gaztea joaten da hara, lan egitera, bizimodua ateratzera, ikastera, jendea ezagutzera. Nik uste nuen ez ninduela hainbeste harritu-ko. Han egonda eta hango literatur eta musika giroa ikusita harrapatu egiten zaituen hiria da. New Yorkek badu dohain bat, hiri ederra dela. Jendea harritu egiten da hau esaten dudanean baina niretzat edertasun sakonago bat du eta nik ezagutu dudana hiririk ederrena da.

GEU elkarte eta aldizkariaren berri noiztik?

Elkarte ezagutu nuen sortu zene-

an, baita aldizkaria ere. Oso beharrezkoa ikusten dut proiektua. Ezin duzue imajinatu nolakoa zen Gasteiz elkarte sortu aurretik. GEUK lortu du euskaldunak batzea, aldizkari moderno bat egitea, itxura moderno ematea euskarari eta euskara harremantzea gizarte moderno bateko tresna bezala. GEUK hortik jo du eta oso ondo egin du gainera. Orain dela hamar urte euskara oso bazterrekoa zen. Hor lan hadia egin da hezkuntzan, euskaltegietan, jendeak ere lan handia egin du bere burua euskara ikastera behartzen eta lan handia egin du GEUK mundu horiek guztiak batzen●



Begiei begiratzea merkea da oso

bonardi 35€
armazoiak

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel 33.
Gasteiz



liburua

'sua falta zaigu'

katixa agirre | elkar-2007ko otsaila | elkarlanean.com

orson wellesek esan ohi zuenez, sekula egon den magorik handienetakoa zen the great iturrino, pertsona bat hiru zatitan egiten duen kaxaren asmatzailea: burua alde batera, oinak bestera eta enborra hirugarrenera. hasier etxeberriak cosme iturrino magolariaren bizitzaren une gogoangarriak agertu ditu 'iturrino handia' nobela berrian: anne eta belle, orson welles, john huston eta beste zenbait adiskiderek in bizi izandakoak.



zinea & cd

'eutsi!'

zuzendaria: alberto gorritiberea / aktoreak: anjel alkain, asier hormaza eta nagore aranburu / euskaraz / euskal herria-2007

'eutsi!' filmak gaur egungo istorio bat kontatzen digu eta bi langileren adiskidetzat du oinarri. filmak komedia eta gatazka sozialak uztartzen ditu. lan egiten duten enpresarekin liskarretan dabilta. industriaren deslokalizazioa eta globalizazioa present dago. langile horien inkonszientean gaztetan bizi izandako errekonbertsio industrialak dago, eta hura berriro jasango dutela agerian ikusten da. bingen mendizabalek soinu bandako musikaren parte bat konposatu du.

oihuka.com



soinu bandarako espreski beste 3 abesti egin dituzte gose eta potemkin taldeek, eta horiei 80ko hamarkadan sortutako beste 12 kantu gehitu zaizkie izen bereko diskoa osatzeko. eutsi! bildumak kontzeptu bat lantzen du: zutik irauteko garaia berreskuratu 80ko hamarkadako abestiak kantatuz. eutsi! bildumak gogora ekarri nahi du langilearen zutik egoteko gogoia eta ez soilik 80ko hamarkadan, baita gaur ere. eutsi! bildumako kantu eta taldeek 80ko hamarkadan historia egin zuten eta denon memoria historikoan dira.

horratx zerrenda: gose, potemkin, hertzainak, itoiz, kortatu, delirium tremens, ruper ordorika, zarama, baldin bada, mikel laboa, jotakie, barricada, potato, la polla records.



PANTALEON BADOA

[txabi arnal gil]



Pantaleon ipar-poloko biztanle bat da. Hala ere ez da inuk. Ezta gizakia ere. Pantaleon elurrezko panpina zuri eta hotza da. Hotza? Inola ere ez! Pantaleonen bihotzari sua dario. Baina aspertuta dago etxeko paisaia hotzaz eta zuriaz. Beroa eta kolore horia ezagutu nahi ditu. Eta bere desira betetzeko asmoz basamorturantz abiatuko da. Elurrezko panpina bat basamortura? Burutik ote? Urtu egingo da! Ala ez? Badaezpada ere, ezkutuan, Natasha, hartz zuria eta laguna, atzetik joango zaio eta arazoak gainditzeko lagunduko dio. Baina zoritxarrez, basamortuko bero itogarriak Natasha indartsuari ere kalte egingo dio.

Egia esan, oraindik ez dakit Zubizarretak eskaintzen digun istorio hau gogoko dudan. Hala ere, jakin badakit Patxi estiloaren maisu bat dela, eta Pantaleon horren adibide garbia dugula. Zubizarretaren idazkera jarioa da, naturala, oparoa, hobeza, istorio on bat bikain bilakatzen duen eskas horietakoa. Gainera, Mitxelena irudigilearen lanak ederki laguntzen dio, distirarazten dio. Bat datoz testua eta irudia. Osa garriak dira.

Denok sumatu dugu inoiz Pantaleonen gogoia. Etxeaz asperturik, munduan zehar korritzeko nahia sentitu dugu inoiz. Denok dakigu beroa eta hotza zer diren. Etxetik urrun gaudeneko hotza. Etxera bueltatzen gareneko bero handia. Pantaleonen hotza eta beroa●

Pantaleon Badoa. Patxi Zubizarreta. Pamiela 2005

Kahina

sabel-dantzaren sentsualitateaz blai

Kairon dantzatzen ikusi zituen mugimenduek interesa piztu zuten Cristina Sampedroengan. Lilura. "Hori egitea ezinezkoa izango da" esan eta ikasteko grinaz bost urteren buruan sable-dantzako irakasle bilakatu da, Kahina goitizen artistikoaz ezagutzera eman den gasteiztar hau. Bere dohaina erakutsiko du dantzariak **GEUren 15. urteurreneko jaian maiatzaren 11n, Artium-en.**

t. josune veleiz de mendizabal a. edorta sanz

Sabel-dantzako klaseak eskaintzeaz gain ikastaroak jasotzen ere dihardu Cristina Sampedrok. "Bai honetan zein edozein eremu artistikotan ezinbestekotzat jotzen dut ikasten jarraitzea -dio-. Ezagutza teknikoez gain badira beste kontu batzuk, hala nola, klasea ematen duen pertsonaren jarreraz edo espresioaz ikas dezakezu". Horregatik hain justu ere, sable-dantzako nondik norakoetan sakontzeko Cristinak bere aisialdiko tarte handia sakrifikatu izan du. "Hasi nintzenean dantza mota hau ez zen gaur egun bezain ezaguna. Erabat berritzailea zen heinean maila profesionalean irakasten zuenik ez zen ez Gasteizen ez Euskal Herri osoan. Hori dela-eta, ikastaro intentsiboak egitera Zaragozara bidaiatu behar izan dut askotan, eta gaur ere berdin jarraitzen dut", nabarmendu du.

Shakiraren musikak sortu du sable-dantzarekiko zaletasuna. "Gure idoloa da", dio Cristinak. Klaseak ematen Gasteizko Muby gimnasioan hasi zen duela urte pare bat eta jendeak oso ondo erantzun du orain artean. Hala ere bere esanetan: "Jendearengan ikasteko gogoia areagotu du Shakiraren dantza egiteko moduak. Erraza delakoan apuntatzen da jendea klaseetara baina gero sorpresa hartzen du, teknika, bereizkuntza, sikomotrizitatea, harmonia, elastikotasuna...".



"GORPUTZAREN ZATI BAKOITZA ISOLATZEAN DATZA SABEL-DANTZA"

Zertan datza sabel-dantza?

Bereizkuntzan. Gorputzaren zati bakoitza isolatzean datza sabel-dantza, alegia, artikulazio eta gihar bakoitzaren mugimenduaren kontzientzia izatean. Dantzatzen ari zarena transmititu behar da, zerbait konplexua da, zalantzarik ez.

Zein testuingurutan ulertu behar dugu dantza mota hau? Non du jatorria?

Jatorria ez dago batere argi, Grezia, Egipto... Adituek bat egiten duten gauza bakarra erritualetako dantza dela esatean da. Kontuan izan behar da gauza bat, eta hona hemen gaizki-uler-tua, dantza erotikotzat hartzen bada ere sabel-dantzak ez dauka sexuarekin zerikusirik, eta bai ordea, sentsualitatearekin. Mugimenduaren ondorio zuzena baita dantzak iradokitzen duen sentsualitatea. Emakumearen gorputza eta bere bihurgunetasuna, alegia. Garai bateko filmek irudia desitxuratu egin zuten erabat.

Zein da ikasteko prozesua?

Oinarrizko mugimendu errazak egiten dira hasieran, eta behin horiek kontrolpean daudela euren artean tartekatu egiten dira. Ostean perkusioa eta elementuak sartzen dira, hau da, makila, sablea, estalkia, krotaloak (txintzarri txikiak, atzamarrakin jotzen direnak), etab. Goreneko maila batean koreografiak landuko lirateke. Hau da nire ustetan ikasteko garapen logikoena baina badakizu, norberak bere trikimainak dauzka. Ikastaro trinkoak eginez gero bi urteren buruan sabel-dantzako dantzari profesionala izatea lor daiteke. Nire kasuan agian hamabi urtetako baletako ikasketek prozesuan lagunduko zutela pentsatzen dut.

Kahina duzu izen artistikoa. Zergatik? Esanahirik al du?

Iradoki zidaten izena da. Dantza egin nuen lehenengo aldia sable batekin aritu nintzen eta Kahina erregin gerlari baten deitura da. Gustatu zitzaidan.

Non ikus daitezke sabel-dantzako ikuskizunak?

Ana Bricio lankidearekin bikote artistikoa osatzen dugu. Deiak jasotzen ditugu hoteletako afari tematikoetan aritzeko, ekintza multikulturaletan, gizarte etxeetako erakustaldietan, antzokietan ikuskizuna egiteko... gero eta gehiago ikusten den dantza da. Eva Chacon eta Clara Bueno sabel-dantzako dantzari ospetsuekin ere dantzatu izan dut.

GEUren 15. urteurreneko jaian ere parte hartuko duzu. Zer eskainiko duzu?

Bi pase egingo ditut baina oraindik zer egingo dudan ezin dut aurreratu. Musika GEUK proposatua da, baina nire dantzatzeko estiloaren berezitasuna da nire dantzak koreografia batera ez moldatzea. Hortaz, ohikoa egingo dut, eszenatokira atera, musika sentitu eta dantza egin ●

indarra eta konpromisozko emakumezko ahotsa

Txiki Tostado rapsoda

Hamar urteren buruan idatziriko sentimenduak bildu ditu Txiki Tostadok *'Si desapareces prometo buscarte entre las sombras'* poema-liburu argitaragabea. Bi urte errezitaldirik eman gabe egon ondoren Txiki iragan martxoan bere hitzak publikoaren aurrean ahotsaz janztera bueltatu zen. Bilduman jaso dituen 16 poemetatik zenbait errezitatu zituen Hikaateneoan iragan hilabetea. Hurrengo emanaldia berriz, **Geu-ren 15. urteurreneko jaian izango da**, non bere lanaz goatzeko parada izango den.

t. josune velez de mendizabal a. edorta sanz

Buruz errezitatzea ez zaio sekulan arrotza suertatu Txiki Tostadori. "Betidanik egin izan dut. Nire aita rapsoda da. Etxeko guztiok errezitatzen dugu. Are gehiago, gure familian *'bota kopla'* esaten diogu eta senide arteko bileretan beti bukatzen dugu errezitaldian", kontatu du Gasteizen duela hogeitau bat urte baino gehiago bizi den extremadurarrak honek.

"Sei urte nituela, hura zer zen ez nekiela ere, La Fontaine errezitatzen nuen", gogora ekarri du Txiki. Publikoan poemak memoriaz eskaintzea hain inportantea izango zenik ez zekien, 1991 urtean emakumeen bilkura batean 300 lagunengana aurrera egin zuenera arte. "Ez nekien horrelako dimentsiorik har zezakeenik", dio harrituta. 1996ko martxoaren 8an emakumeen jaialdi batean beste errezitaldi bat eskaini eta orduetik "etenik gabe" ibili dela aitortu du.

Bere ibilbidean Xuxurla taldea osatu zuen beste hiru emakumerekin batera, eta bai taldean bai bakarka, Euskalduna jauregian, Kursaal, Euskal Eskola Publiko zein emakumeen ekintzetan, besteak beste, parte hartu izan du rapsodak. Emanaldi horien guztien artean bi gogoratzen ditu bereziki Txiki: "Behin diputatu batek deitu zidan bere emazteari errezitaldi pribatu bat eskaintzeko eta ekaitz handi batek argia moztu zuen azken momentuan. Kandlekin egin behar izan nuen eta oso polita geratu zen". Bestea ordea are hunkigarriagoa da. "Nire iloba den Almudena Cidi eginiko omenaldian errezitatu nuen. Orduetik nik *botatako* poema bere muntaietan darama. Nik ahotsez esandakoa berak dantzatu izan du mundu osoan", kontatu du emozioz.

Emakumeekiko konpromiso soziala antzematen zaio Txiki Tostadori, bai mintzatzen denean, bai emakumeen bilkura ugarian errezitatzen ibili izanagatik. Baina edozein poetak bezala "malenkoniaren gaitzak" jota egon dela dio rapsodak azken bi urteetan.

"NIRE POEMAK MINETIK SORTUAK DIRA"

Bi urtetan errexitatu gabe egon zara baina zure bilduma berriaren aurkezpena egiteko Hikaateneoan izan zinen martxoan. Zein izan da errezitaldi publikoetatik aldentzeko arrazoia? Honek bueltatzen zarela esan nahi du?

Edozein poetari gertatu ohi zaion bezala depresioak edo malenkoniaren gaitzak jota egon naiz. Ez nintzen indartsu ikusten jendearen aurrean aurkezteko. Poema-liburu argitaragabe honen zenbait poema irakurtzeko Hikaateneoa aukeratu nuen, bertakok lagunak direlako eta babestua sentitzen naizen lekua delako, jendearen beroa sentitzen dudalako, alegia.

'Si desapareces prometo buscarte entre las sombras' du izenburu liburuak. Zer kontatzen duzu bertan?

Guztira 16 poema dira. Hamar urte eman ditut hauek egiten. Nik guztira 3 poema bilduma ditut. Lehenengo biak, "Clave de sol" eta "Poemas alquímicos", literatur aldizkarietan argitaratu dira. Honako honek momentuz argitaletxerik ez dauka nahiz eta errezitadirako entzuleentzako liburuxka bat kaleratu nuen. Nik ez ditut poemak errokillak bezala egiten ostean kaxoian gordetzeko. Nire poemak minetik sortuak dira.

Ze poema mota dira?

Nik betidanik sinbologia eta mitoe-kin lan egin izan dut, oso klasikoa naiz zentzu horretan. Ni neu gainera oso kritikoa naiz nire buruarekin eta esan beharra dut orain arte idatziriko bildumen artean honekin geratu naizela gusturen. Eta benetan diotsut, ni ez naizela sekulan ehuneko ehunean geratzen.

Sinbologiarekin loturiko izenburua al da akaso hirugarren poema sorta honetarako aukeraturikoa?



Hau da bere garaian, 90. hamarkadan, Xabin Egaña artistari eskaini eta errexitatu nion poema batek dioena: "Si desapareces prometo buscarte entre las sombras". Basaurin izan zen errezitaldi hura eta Xabin oraindik gure artean zegoela errexitatzeko aukera izan nuen. Iñigo Marianori ere dedikatu diot liburua, bera baita nire ustez gaur egungo poetarik onena.

Geu-ren jaian ere poema bat errezitatu duzu euskaraz...


Bai, euskarazko aldizkaria eta elkar-teen urteurrena delako. Nire euskararekiko harremana oso bitxia da. Gasteiza bizitzera etorri nintzenean

lantokiaren ondoan AEK-ko euskaltegia zegoen eta koadrilako gehienak euskaldun zaharrak zirenez ikastera apuntatu nintzen. Bosgarren maila ere lortu nuen, baina azkenean denbora falta zela-eta, utzi behar izan nuen. Euskaraz errexitatu izan dut. Euskararen sonoritatea asko gustatzen zait eta hizkuntza bera oso musikala iruditzen zait. Bere antzinatasunagatik ere magikoa iruditzen zaidan hizkuntza da euskara. Jaian Amaia Lasaren poema bat *botako* dut buruz, 'Amodioaren amorantea', euskaraz noski●

kaixomaitia.com

Harremanetarako bidea sarean

Asko dira bikotekidea bilatzeko, ligatzeko edo harremanak sortzeko interneten dauden web orriak. Gure herrian gehienak gazteleraz edo frantsesez ditugu. Orain, ordea, badugu sarean euskaraz ere ligatzeko gunea: kaixomaitia.com



ko) 7.000 bisitatik gora izan ditu, eta 250 lagun inguru harpidetu dira. Datuok ikusita, argi dago euskaldunen artean ligatzeko web orri baten premia zegoela, eta kaixomaitia-k orain arteko hutsune hori bete duela. Euskara hutsean dago, eta horixe da gisa horretako beste web orrietatik desberdintzen duen funtsezko ezaugarria. Iñigo Arandia Araneteko zuzendaria argi dauka euskarak bere esparrua izan behar duela interneten: "Euskarak bere esparrua izan behar du interneten, garatu egin behar da, baita teknologia berrietan ere, eta kaixomaitia.com-ekin euskarari ekarpen txikia egin nahi diogu".

Merkatu ikerketa ere egin zuten Aranet-ekoek, ikuspuntu soziodemografiko eta ekonomikoa aintzat hartuz. Horretarako, Eustat-eko datuetara jo zuten, euskararen bilakaera, presentzia, hartzun adina, edota herrialdeko erabilera ikertzeko. Den-dena aztertu zuten, eta web orria zabaltzea bideragarria izan zitekeela ikusi zuten.

Webgunea euskaraz izateari irakurketa bikoitza egiten dio Arandiak, abantailak eta desabantailak ikusten baitizkio. Alde batetik, euskaldunen komunitatea txikia izatean, anonimotasuna galtzeko ustea dago, eta jendeak lotsa handiagoa izan

t. edurne begiristain a. edorta sanz

Horixe da bikote harremanak sortzeko euskara hutsean egindako webgune berria. Otsailaren 14a, San Valentin eguna, baliatu zuten Aranet Internet zerbitzukoek webgunea martxan jartzeko.

Harrera ezin hobea izan du kaixomaitia.com-ek euskaldunen artean. Webgunea zabaltzeko (eta lerrook idaztera-



ohi du parte hartzeko momentuan. Haatik, hori abantaila ere badela iritzi dio Aranet-eko zuzendariak, harremanak sortzeko garaian samurragoa baita komunitate txiki batean egitea, handiago batean baino: "Euskadun bezala gazteleraz edo frantsesez egindako orri bateko bezero egiten bazara, Huelvako edo Nanteseko pertsona bat aurkitu dezakezu, baina normalean ez zara haraino joango pertsona hori ezagutzero".

Euskaldunen komunitatearen tamainak, beraz, eragin zuzena izan du webgunearen hazkundea motelagoa izateko. Baina, apurka-apurka gora doaz bisita eta harpidetzak, bereziki jendeak ikusten duelako bere intimitatea errespetatzen dela eta webgunea "kalitatezkoa eta serioa" dela.

Harpidetza kalitateari so

Bi harpidetza mota daude: osoa, ordaindu egin behar da; eta mugatua, debaldekoa da. Doako harpidetza egiteak, baina, ez dio erabiltzaileari zerbitzu guztiez gozatzeko aukera emango, hots, bere ezaugarriak eman ditzake, baina ezingo da beste pertsona batzuekin harremanetan jarri, ezingo du mezurik bidali eta jaso.

Harpidetzen diren pertsonen datuekin datu base bat sortzen dute Aranet-ekoek. Harpidetzeko ezaugarri bi bete behar ditu erabiltzaileak: 18 urtetik gorakoa izatea eta euskaraz idaztea. Bere buruaren eta bilatzen duen pertsonaren deskribapenak idatzi behar ditu erabiltzaileak, eta informazio hori guztia behin datu basean sartuta, berrikusi egiten dute, ostean baieztatzeko edo atzera botatzeko. Nolabaiteko "galbahea" pasaztzen diete erabiltzaileei, seriotasuna eta kalitatea bilatze aldera, Esaterako, norberaren argazkiak jarri beharrean paisaiak edo txakurrarena eskegiten duenari argazkia kentzen diote; gazteleraz idatzitako mezuak ezabatzen dituzte; bortizkeria edota irainak erabiltzen dituztenak ere ez dituzte ontzat jotzen...

Horretan datza "kalitatezko zerbitzua"

ematea, Arandiaren hitzetan. Informazioa ontzat emanez gero, erabiltzaileari jakinarazi eta haren esku jartzen dute datu basea. Modu horretan, gizon edo emakumeren bat interesatuz gero, mezua bidali ahaliko dio kaixomaitia.com zerbitzariaren bitartez.



Iñigo arandia, aramet-eko zuzendaria

Bidea eginez

Konfiantza hartuz doa kaixomaitia.com-eko erabiltzailea, hasierako lotsa eta mesfidantza gaudituz. Arandiak azaldu digunez, lehen egunetako erabiltzaileak gazteak ziren, "kuriostatez sartzen zirenak, denbora-pasa gisa, jolasteko". Orain ordea, serio hartu du jendeak, nahiz eta oraindik lotsa nagusi den: "Orokorrean informazio gutxi ematen da, jendea harpidetu egiten da baina ez du argazkirik jartzen, ez deskribapenik... Baina duela astebate harpidetu zen jendea dagoeneko hasi da datu gehiago sartzen. Ikusten da nabarmenki serioak direla gunean sartzen direnak, harreman bila doazela".

Gizartean dauden aurreritziek badute isla webgunean. Izan ere, lau erabiltzaileetatik hiru gizonezkoak dira. Gainera, gizonezkoak ere ausartagoak dira, eta argazkia jartzera animatu ohi dira. "Gizartean ez dakit zein puntutaraino ongi ikusita dagoen emakume bat ligatzera ateratzea, ehiztari moduan ateratzea. Beharbada emakumeek ere badute hori subkontzientean, eta interneta birtuala izan arren, gizartearen isla ere bada", azpimarratu du Arandiak.

KUADRILATEGI: euskarazko aisialdirako egitasmoa

Eskola orduak amaitu eta askorentzat euskaraz hitz egiteko tarteak ere amaitzen da. Aukerarik ez izatea edota ohitura falta aitzakia, baztertuta geratzen da euskara aisialdi garaian. Arazoak jabetuta, aisialdirako proposamen berria abian jarri dute, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat, Armentia eta Olabide ikastolek elkarlanean.

t. anakoz amenabar a. edorta sanz

Hizkuntza ohiturak aldatzea du xede Kuadrilategi egitasmoak, eta horretan buru-belarri ari dira, sustatzaile lanetan, Arantxa Gonzalez Olabide ikastolako irakaslea eta Koldo Zubizarreta Armentia ikastolako euskara teknikaria.

Euskaraz Bizi-ren ekimenez, Euskal Herriko hainbat herritan jarri dute abian Kuadrilategi, Aretxabaleta edo Lasarten kasu. "Guri gehien interesatzen zitzaigun ereduak Atarrabiakoa zen, Gasteizen ezaugarri soziolinguistiko antzekoak dituelako eta bertan nahiko esperientzia ona izan dutelako orain arte", azaldu du Koldok. Armentiak eta Olabidek martxan jarritako proposamena erronka berria izan da, halere: "Orain arteko esperientziak udalerrien bitartez eraman ahal izan dira aurrera, ikastetxeetan ez da inoiz egin halakorik. Erronka galanta izan da", gogoratu du Arantxak.

Gazteen aldetik erantzuna uste baino hobe izan da sustatzaileek nabarmendu moduan. "Lehenengo urtea izanda aurreikusten genuen, beharbada, erantzuna ez zela oso handia izango eta horregatik aritu gara elkarlanean Armentia eta Olabide, baina uste baino ikasle gehiago daude". Ikastetxe bakoitzeko 30 bat lagun biltzen dira ostiralero, 19:00etatik 21:30era bitar-

hizkuntza ohiturak aldatzea du xede kuadrilategi egitasmoak

gazteen aldetik erantzuna uste baino hobe izan da

gasteizko euskararen egoeraren inguruan, halaber, biak ala biak baikor dira, gazte eta helduen artean ere euskararen erabilera igo dela sumatu baitute

datorren ikasturteari begira, bestalde, hiri mailako kuadrilategia martxan jartzea beharrezkoa dela uste dute



tean, Landatxo gizarte etxean Gasteizko Udalak utzi dien aretoan.

Izotz pistara batean, fimoa egiten bestean, sukaldean bizkotxoak egiten hurrengotan, eskalatzen... Hiru begiralek lagunduta, hainbat taldetan banatu eta haiekin adostutako ekintza ezberdinak egiten dituzte astero, abenduaz geroztik. "Egokiena ikasturte hasieran martxan jartzea litzateke, eurek ere euren aisialdia hobe antolatzeak aukera izan dezaten", aipatu du Koldok. Halere, lan neketsua izan da dena antolatu artean, toki aproposa aurkitzea eta begirale egokiak aurkitzea ez baitute lan erraza izan.



koldo zubizarreta, armentia ikastolako euskara teknikaria eta arantxa gonzalez, olabide ikastolako irakaslea

Gazteei erakargarriagoa egiteko asmoz, halaber, ekintza ikastoletatik ateratzea erabaki zuten. Lagun taldeekin bildu eta gustuko ekintzak egiteko proposamena zen, eta horregatik jarri zuten ostiral arratsaldeetan.

Oraindik zaila da emaitzez hitz egitea edota gazteen hizkuntza ohituretan eraginik izango ote duen jakitea. Maiatza izango da martxan jarritako Kuadrilategiaren inguruan balorazioa egiteko unea, eta beste ikastoletara zabaldu edota aldaketak egiteko garaia. "Hizkuntza aldeko emaitzak emateko pare bat ikasturte beharko dira, ea benetan euren hizkuntza ohiturak aldatzen dituzten ikusteko. Gu baikorrak gara", diote sustatzaileek.

Gasteizko euskararen egoeraren inguruan, halaber, biak ala biak baikor dira, gazte eta helduen artean ere euskararen

erabilera igo dela sumatu baitute. "Gasteizera etorri nintzeneko egoera, orain dela hamahiru urte, eta oraingo egoera alderatuta, desberdintasun handia nabaritzen dut kalean, askoz euskaldunagoa da. Egiten diren ekimen guztiak gutxi dira, halere, gauzak asko bultzatu behar dira oraindik", diosku Koldok.

Datorren ikasturteari begira, bestalde, hiri mailako Kuadrilategia martxan jartzea beharrezkoa dela uste dute. Eta asmo horiekin dabilta, hain zuzen, Gasteizko euskalgintzako hainbat elkarte eta euskaltegi, tartean Geu elkarte, Olabide eta Armentia ikastoletako taldeak ere, adin eta jende multzo zabalagoetara heltzeko helburuaz. "Oso garrantzitsuak dira halako ekimenak. Euskara ikasi eta maila bat lortu ondoren praktikatzeko aukerarik ez duen jende asko baitago. Gertuko jendea euskalduna ez bada oso zaila daukate.

Halako aukerak ematea beharrezkoa da, astean behin geratzeko aukera emanez".

Gasteizen helduentzat aisialdirako eskaintza euskaraz eskasa dela nabarmendu dute eta are eskasagoa 13 eta 14 urte bitarteko gazteentzako. "Ikastolatik kanpo euskara talderik ez dute futbolearen edo saskibaloian aritzeko adibidez, eta gustuko dituzten ekintza horiek euskaraz egin ahal izatea garrantzitsua da", aipatu du Koldok.

Denborarekin ohiturak aldatzen joan eta aukerak ere gehituko direla uste dute. "Ikastolan ere askotan euskara entzutea zaila bada ere, nik uste ereiten ari garela eta urte batzuen bueltan aterako zaiela. Ikasleak izandakoak ikusten ditut orain seme-alabekin, eta euskararen aldeko hautua egiten dute askok", nabarmendu du Arantxak.

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behean - 01005 GASTEIZ

Tfno./Faxo: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2

TFNO. 143883

GASTEIZ

Dalvez

argitarazleak

diseinu grafikoa maketazioa

diaz de olano kalea, 22 tl: 652 77 65 09

fx: 945 24 52 69 info@dalvez.com

Bai Euskarari Zuzentzea

bai

Guk zerbitzua euskaraz

KUTXITRIL ATENEOA:

Dagoeneko urtebete igaro da Gasteizko Aiztogile kaleko 99 zenbakian aspalditik hutsik zegoen lokala Hemen eta Munduan taldekoek okupatu zutenetik. Kutxitril Ateneoa, urtebetean, askatutako lokal bilakatu da, talde ezberdinen topagune.

t. edurne begiristain

Jarduera politiko, sozial eta kulturalen erreferentzia da dagoeneko Kutxitrila, auzoan zein auzoaren alde diharduten eragileen esku jartzeko asmoari eutsi egin baitiote bertan.

Hemen eta Munduan taldekoen ekime-
nez okupatu zuten iazko inauterietan Aiz-
togile kaleko 99 zenbakiko lokala. Biltzeko
eta lan egiteko leku propioaren bila zeu-
den taldekoak, Alde Zaharreko esparru
hori topatu zuten arte. Urteak zeramatzan
hutsik, utzita, eraikin osoa bezala. Jabea
nor zen jakiten saiatu zirenean, nahasme-
narekin topo egin zuten: Santa Maria
Katedraleko Fundazioak zioen berea zela,
eta Jabegoaren Erregistroak, berriz, parti-
kular batena zela. Jabegoaren auzia argi-
tzerik ez zegoenez, barrura sartzea erabaki
zuten taldekoek.

Koldo Sagasti izan zen lokala okupatu
zuenetako bat. Hasierako asteetako lan
nagusia egoitza txukuntzea eta atontzea-
rena izan zela gogoratu du, lokala erabat
"utzita" zegoelako, "nahiko egoera kaxka-
rrean". Hasiera batean Hemen eta Mundua
taldeko topagune izateko erabili zuten
tokia, eta auzoan diharduten beste taldeei
ere esparrua ireki zieten. Hala, urtebetean
hainbat taldek erabili izan dute Kutxitrila,
bilerak eta jarduerak egiteko: Txosnen
Batzordeak, 18/98 lan taldeak...

Kutxitrila okupatu zutenek ere zenbait
ekintza burutu dituzte bertan. Hilabeteko
lehen larunbatetako jaiak ez ezik, kutsu
politikoagoa duten ekimenak ere izan dira

bertan, besteak beste, prekarietateaz, oku-
pazioaz, edota Palestinaren egoerari bu-
ruzko jardunaldiak burutu dituzte.

PERIa

Kutxitril Ateneoa Alde Zaharrean ireki-
tzea ez zela nolanahiko erabakia izan
azpimarratu du Sagastik. Okupazioa buru-
tu zutenak auzokideak diren aldetik, PERI
Alde Zaharra eraberritzeko planarekiko
"kezka" badutela azaldu du. Hortaz, euren
jarduerak burutzeko esparru baten beha-
rra izateaz gainera, okupazioarekin
PERIlan jasota dauden egitasmoak salatu
nahi izan dituztela argitu du Sagastik,
okupazioari salaketa kutsua emanaz. "In-
posatutako plana da, auzokideen iritzia
kontuan hartu gabe egindakoa, eta auzo-
tarren interesetatik haratago doana, asmo
komertzialak eta enpresarialak bilatzen
dituelako".

Kritika horren inguruko hausnarketa
partekatzeko aukera izan dute Azao plata-
formakoekin, eta PERIren kontrako asan-
bladarekin. Sagastik uste du auzi horretan
agerian geratu dela Udalak ez duela inol-
ako interesik izan auzotarren iritzia kon-
tuan hartzeko, Azao-k berak egindako
ekarpen sozialei muzin egin baitie udal
gobernuak.


Zabalduz

Urtebeteko balorazioa egiterakoan, pozik
daudela aitortu digu Sagastik. Baikor eta
positiboki ikusten du Kutxitril Ateneoaren



utxitril

topagune askeak urtebete



kutxitril ateneoko kideak lanean

urtebeteko bizitza. Azken urte honetan eraikin horretarako "egitasmo eraikitzaile eta zentzuzko bat proposatu eta gauzatu" duen eragile bakarra Kutxitril Ateneoa izan dela iritzi dio.

Aurrera begira ere bide beretik jarraitze-ko asmoa dutela esan digu, bertan irauten badute, behinik behin. Kutxitril Ateneoa auzoan dauden taldeei irekitzeko lanean hasiko dira hemendik aurrera, izaera politikodun taldeei ez ezik, bestelako jardue- tara ere zabaltzeko. Esaterako, Alde Zaha- rrean bizi den Senegaleko talde batek margoketak egiteko erabiliko du lokala.

Modu horretan, auzoan bizikide diren hizkuntza, kultura eta jatorri desberdine- tako pertsonak bilduko dituen esparru bilakatu nahi dute Kutxitril Ateneoa. "Uste dugu auzoak duen aberastasunetako bat kultur aniztasuna dela, baina orain arte ez dugu lortu esperientziak trukatzeko espa- rrurik. Orain, gure erronka nagusia, espa- rru hori lortzea da"●

HUSTEAREN MEHATXUA

Okupazioa burutu zutenetik ez dute oraindik inolako salaketarik jaso. Koldo Sagastik azaldu digunez, "hasierako egunetatik erakunde politiko-mediatikoe- k, -Santa Maria Fundazioak, Sindikoak, El Correo-ko hainbat iritzigilek- jarrera erasokorra erakutsi zuten okupatzaileen aurka". Urtebete geroago, ordea, argi geratu da eraikin osoa erabat utzita dagoela. Sagastik azaldu duenez, erakina botatzeko asmoa izan zuten hasieran, bertan katedralaren harresiak agerian utzi nahi zituztelako, baina Eusko Jaurlaritzak ukatu egin zien hori egiteko baimena, etxeek duten balio historikoagatik. Gainera, eraikinaren jabeari beste lokal baten truke aldatu zioten 99 zenbakiko lokala, eta beraz, okupen aurkako salaketarik jartzeko asmorik izango duenik ez dute uste Kutxitrilekoek. Halaber, Fundazioak ezin du salaketarik jarri, berea ez baita lokala. Horregatik, Sagastik ez du uste lokala hustuko dutenik.

kutxitril

ateneoa



GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

Uetzal
*Hegoamerikako
jantzirik ederrenak*
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

bar · restaurante ·
albéniz
Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnook: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOLA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ERROTA
HORTZ KLINIKA
Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Argazki - Estudioa
Erramun
Heraclio Fournier, 23 Tñoa: 13 71 02 01006
Askatasun kalea, 5 Tñoa: 26 19 91 01004

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

HEGOALDE
Euskaltega
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik behar zaitu
EAJ PNV

KIDE
APAINDURA
Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

ARABA eta topikoak (eta III)

ZAZPIGARREN ALABA

t. kike fdz. de pinedo, filologoa

Lehen artikuluan topiko nagusien artean Araba ezdeusa edo pobre irudikatu ohi zela esaten genuen. Zeinek ez du Gorka Knörr-en "Araba, oi Araba! zu ote zare aitaren zazpigarren alaba?" entzun noiz edo noiz. Agian lelo ezagun honek badu biktimismo puntu bat baina metafora moduan bere laburrean gurean oso zabalduak sentimendua laburbiltzen du, hots, xarman, historian, sinbolismoan, euskaltasunean eta protagonismoan Araba azken tokian dagoela.

Badira jarrera hau ulertzeko hainbat gertaera: lurralde gehienean euskara galdu izana, honek dakarren kultura galararekin; XIX mendean hasitako industrializazio prozesuan atzean gelditu izana; gerra zibilean Nafarroarekin batera alde "nazionalen" lerrota (lerroarazi) izana; edo-ta euskal nazionalismo historikoak indartutako irudi eta sinbologiak lagundu ez izana. Historiako kontuekin hasi garenez gero, arlo honetan ere ez da zaila aurreiritzirik topatzea. Araba (eta Nafarroako erdi-hegoaldea) herri, kultura eta eragin ugarien lurra dela onartzen den moduan beste lurraldeek garbi, "puruak" eta erdi basati iraun dutela pentsatzea oraindik oso zabalduta dagoen topikoetako bat da -Saltu eta Ager famatuak-. Gaur, ordea, badakigu basatiaren mitoa gezurra dela, burdin aroko herrixkak edo kostaldeko erromatar herriak lekuko. Egia ez den bezala, euskara bizirik iritsi zaigula isolamenduari esker.

Bigarren aurreiritzi nagusia Arabak historian zehar pisu eta zeresan gutxi izan duela da. Azken urteetan, ordea, zenbat eta gehiago ikertu hainbat eta argiago dago kontrakoa. Ez dugu garaipen epikorik, bai aldiz, gutxi ezagutu eta harritzeko modukok diren hamaika historia txipi. Harritzen gaitu adibidez, Mendandiako. (Saseta) buztingintza originalak, duela 7.000 urte sortua eta Penintsulako zaharrena dena. Graffiti txundigarriez gain, Iruña-Veleiako dimentsioak ere harritzen gaitu. X. mende Kristo aurreko hiriak zein erromatarren garaiko 10-15 mila biztanlekoak, bere "nazio arteko" merkataritza, zerbitzu ugari eta kultura maila oparoarekin. Harritzen gaitu halaber, VIII-IX. mendeetan amazigh eta arabiar herriek *Alaba al-Quiláren* aurka hainbeste erasoaldi egin izanak. Harritzen gaitu IX-X. mendeko Armentiak, Deba bailara, Bizkaia eta Araba gehienaren apezpikutza bihurtuta, bere sakrario



misterioitsu eta bertako trepanazio konplexuek erakusten diguten garapenarekin. Harritzen gaitu 1025 urtean Nafarroako Antso Nagusiaren erreinupean (Nafarroaren gaiak eta Kastillaren "anexioa" k ere luze joko luke) Arabako herriek halako kopuru, dinamismo eta garapena izateak, non Donemiliagari 304 herrik burdin-erreak emateko gai baitziren (burdin mea garraiatu eta herriek haizeolen bidez burdina ekoizten ote zuten?). Harritzen gaitu, XVII. mendera arte, Gasteizek izan zuen merkataritza mailak, Bilbo edo Donostia populazio eta garrantzia gaintuz. Eta harritzen gaituzte Gatzagak, Errioxako ondareak, Trebiñu eta Gobiarango koba eremitikoek, Aldaietak, trikuharriek...

Ahate itsusiaren ipuinarena

Norberaren bizipen eta ikuskeraren arabera aurreiritzi gehiago edo gutxiago aipa litezke, badakizue, honetan ere *zenbat buru hainbat aburu*. Hori bai, gainontzeko 6 alabei aurre-juzkurik gabe gehiago ezagut gaitzaten eskatuko nieke gehiago maite zein gorrotatzeko. Ez dut uste, halere, *zazpigarren alabaren* sindromea ona denik. Agian ipuineko *ahate itsusiak* bezala besteekin konparatzen ibiltzeari utzi eta gure lurraldeko gazi-goza onartzea eta hobeto ezagutzea behar dugu denok. Euskal Herria izango bada denon ekarpena eta ezagutza behar baita. Orain dela 5 mende Larreako Perez Lazarragak oso modu naturalean egin zuen: gorputza (Euskal Herria eta Araba) goraipatuz eta bihotza (euskara) erabiliz:

"çegaiti doçun Eusquel Herria aynbat bentajaz dotadu... oy Arabaco abantajaoc eçin litezque contadu"

Harrotasun baikorrez begira dezagun geroa, konplexu, aurreiritzi eta chauvinismo merkerik gabe. Ebro ondoko Araba Euskaraz-eko kantak zioen moduan "errexha da hara: gara garelako eta nahi dugulako"●

bidaiak



cancun

t. jon arretxe

Nire bidaietan era guztietako tokietan suertatu zait lo egitea: buruko eta izara belztuko ohaxketan, arka-kusoz eta labezomorroz betetako geletan, eltxoz inguraturako hamaketan...

Mila izarreko hoteletan pasatu ditut gauak sarri, batzuetan zeru garbirantz aho zabalik begira, zoriontsu; beste batzuetan nazkaturik eta loak hartu ezinda lurraren gogortasunagatik edo hotzagatik.

Askotan galdetu didate zein esperientzia berri bizitzea gustatuko litzaidakeen, eta aurtengo neguan izan dut horietariko bat: astebete ematea bost izarreko hotel batean, non eta Cancunen.

Kilikagarria izan zen niretzat luxuzko eraikin itzel haren sarrerara taxiz heldu eta uniformeaz jantzitako zerbitzari prestuak zain izatea motxila eskutik kendu eta gelara eramateko, izara ezin garbiagoko ohe mugagabeen etzatea, handik zappinga eginez hamaikatxo kanaletako telebista moderno horietariko batez gozatzea, beste zereginik ez zegoenean terraza zabaleko jakuzian sartzea...

Zerbitzari guztiek egiten ziguten erreberentzia eurekin gurutzatzean, garbitzaileek goizero txukuntzen zuten goitik behera gure gela eskerga, eta iluntzero morroi bat joaten zitzaigun bisitan, zeozer behar ote genuen itauntzera; alde egin aurretik, ohe gaineko kuxinak harrotu, modu artistikoan kokatu eta hiru bonbòi uzten zizkigun. Eta honi denari eransten badiogu barra librea geneukala hoteleko bost jatetxeetan...

Arraro samar sentitu nintzen Cancungo egotaldian, jokoz kanpo bezala, eta nire esperientzia berria isilpean gordetzen saiatu nintzen, erdi lotsaz, errudun sentimendu bitxia sumatuz nire baitan.

Baina ze arraiio, pentsatu nuen gero, bizitzan denetik probatu behar da, gauzak konparatu eta gustukoenak aukeratzeko. Eta aitortu behar dut gustatu egin zitzaidala Cancungo esperientzia. Agian orain arteko masoka estiloko bidaiak utzi eta bestelako bizipenak bilatzen hasi beharko dut.



ERREZETA

KREMAZKO TUTU FRIJITUAK

t. diocesan- mendizorrotza ostalaritza eskola

> Osagaiak:



500 g irin
250 g esne
125 g gurin edo ekilore olio
Gatz apur bat



> Prestaketa

Ontzi batean jarri osagai guztiak (gurina urtuta). Oratu, ore fin eta bigun bat lortu arte. Ondoren, igurtzi koipez arrabol bat, eta zabaldu arrabolarekin oreka mahai gainean. Ahalik eta meheen gelditu behar du oreka. Zabaldutako orearekin zerrenda estuak egingo ditugu, eta moldeetan bilduko ditugu. Ondoren, olio ugaritan frijituko ditugu, 150 °C-ra, gutxi gorabehera, eta ondoren, koipea xurgatzeko paper baten gainean utziko ditugu.

Azkenik, bete pastel-kremarekin. Eta akabera emateko, azukre hauts pixka bat botako diegu gainetik.





[MUNDINA]



HISTORIAZUTABEA

Egurra tximinoari...

[erlantz urtasun antzano. historialaria]

Denbora nola pasatzen den ikaragarria da, irakurle, baina oroitzeko dugun ahalmena ere nahikoa kapritxosoa dela ezin ukatu. Adibide bat. Hondar asteotan tikitan nahiz gazte garaian ikusi nituen pelikula jurasiko batzuk berriz ere gozatu ditut. Eta, sinetsiezadazue, batzuetan izenburua edota filmaren amaiera bera ere ezberdin oroitzen nuen. Hau desastrea...



Bada, halere, inoiz ahantziko ez dudana hamaika gauza, denboraren orratzek herdoilduko ez didatena. Eta horietako bat da egun desagertua den garai bateko Goierri, baserri mundu hura, non erdaraz gaizki zekitenek, sagardoa edaterakoan, "leña al mono" erraten zuten.

Ondoan, andereño euskaldun berriak honela zuzentzen zien: "leña al mono ez, egurra tximinoari!". Haiek far egiten zuten, eta bihotz abertzale zintzo horiek begirada ironikoak ere luzatzen zizkieten, irakaslearen lana eta kemena zinez estimatu arren.

Horrelakoetan Bagare-n zena oroitzen dut, historia ja, historikoa, Antso Jakitunaren erabakiak edo Guridiren abestiak bezala. Nola zen hormirudi hura? Aitatxi txapeldunak: "Me pones dos sagardos", edo halako zerbait, eta ondoan gaztetto punkiak: "Baskoz ez, euskaraz bai!".

Klima Aldaketari esker azkenean sortuko den Euskadi Tropikala etorkizun hurbila da, eta duela bi mila urteko Iruña Oka berean Ivanova, Leila eta Rosaura euskaraz biziko dira●

"ARABAKO HERRI IZENAK ALDATU DIRA HISTORIAN ZEHAR?" (XIII)

Luzez "Ormijana" deitu ohi dena ezagutzen duzue? Nik "Villa de Ormijana" ere irakurri ahal izan dut hainbatetan. Horrela ikusirik, kontxo, ba euskara dela ematen du, baina erranahia bilatuz gero temati jarri eta nahikoa gauza astuna litzateke azalpenen emateko.

Izan ere, inork gutik galdetzen dio bere buruari zer kojonian ote den "Orleans" bertan frantsesez bizi ahal izaitzeko, baina euskaldunok, oraindik ere, abokatu frogak, jaiotze argazkiak eta ez dakit zer gauza gehiago aurkeztu behar dugun gure euskalduntasunaren aldarrikatzeko.

Datu batzuk ez berterik: duela mila urte inguru "Urbillana" idatzi zuten. 1257 aldean, berriz, "Formijana", eta XVI. mendean barna honako hauek aurkituko ditugu: "Hurmijana", "Urmijana". Erriberagoitian da, eta egun Euskaltzaindiak "Ormijana" dela dio. Hots, euskara da, Araba da, Euskal Herria. Eta bihar, Ormijanako jendearen hiriburua, Iruñea izanen?

[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

ezker independentea



aralar

ezker independentista

www.aralar.net

araba@aralar.net

945 252631

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA: KUOTA 2007

2007ko HARPIDETZA KUOTA MARTXOAREN BUKAERA-APIRILAREN HASIERA ARTEAN PASAKO ZAIZUE (20 EURO).

ESKERRIK ASKO GUZTIOI!

geu aldizkariko harpideduna izan nahi dut

> izen-abizenak: _____
> helbidea: _____ > telef zk.: _____
> hiria-herria / posta-kodea: _____ > herrialdea: _____
> kontu korrontearen 20 dijitoak + titularren izen-abizenak: _____

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

harpidedun egin eta opari bat jasoko duzue etxean!!!

www.geugasteiz.com


geugaste@grn.es geu@geugasteiz.com

**urtean
11 ale
20 eurotan**

Geu aldizkaria
Pedro asua kalea-2-3.a | 01008 gasteiz
945222153

euskara dastatu

GEUrekin



5 urte

maiatzak 11
jaialdi-gala artium-en